

## MALERREKAKO KULTUR IBILBIDEA 2016

Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, eta Doneztebeko, Urrozko, Iturengo eta Saldiasko udalek Malerrekako Kultur Ibilbidea antolatu dute. Kultur ibilbide hau antolatzen den laugarren urtea izanen da. 2016ko edizio honetan ere programazio erakargarri bat eskaini nahi izan diegu Malerrekako eta inguruko biztanleei. Kultur Ibilbide hau urriaren 9an hasi eta urriaren 29an bukatuko da.

### BERTSO MARRAZTUAK

URRIAK 9, IGANDEA:

DONEZTEBE

19:00etan ZINEMAN



Bertso marraztuak emanaldi berezia da. Karikaturgile batek (Unai Gaztelumendi) eta bi bertsolarik osatzen dute taldea. Karikaturgilea marrazten hasiko da, eginen dituen marrazkiak izanen dira proposatutako gaiak, eta bertsolariek hauen haritik tiraka eginen dituzte beren lanak. Atal desberdinak deskribatuko dituzte marrazkiek, egoera hipotetiko bat, aktualitateko gai bat...Horretaz gain, bueltan dauden pertsona batzuk hautatu eta hauen karikaturak eginen ditu karikaturgileak, bertsolariek nortasuna

bilatzen saiatuko dira bertaratuen irriak eraginen dituztelarik.



URRIAK 15, LARUNBATA

URROZ. Plazan (euria eginez gero frontoian eginen da

17:00etan **OLIVER MAGOA eta EVA** eta egunean zehar puzgarriak egonen dira herriko plazan.

*Oliver Magic Show* ikuskizunean, Oliver Magoak eta Evak, ume laguntzaileekin batera, gozaraziko digute magiaz betetako ikuskizun honekin: Bizitza berreskuratzen duten objektuak eta marrazkiak, ikusleek sortutako magia, errezeta magiko sinesgaitzak eta efektu berezi txundigarriak. Hau guztia umore, emozio, erritmo handi eta antzerki-izaeraz beteta.

## URRIAK 22, LARUNBATA


ITUREN: Tresanea ostatuan

20:30ean: afari merendua Tresanea ostatuan.

22:00etan : "Minus ukittua" bakarriketa Telmo Iruretarekin.

23:00etan : Musika emanaldia "PALENKA" taldearekin.

Kultur Ibilbidearen hirugarren saioa Iturenen eginen da. Egitaraua afari-merendu batekin hasiko da Tresanea Ostatuan, 20:30ean.



22:00etan **TELMO IRURETA** aktore eta zine zuzendari zumaiarrak bakarriketa bat eskainiko du, Minus ukittua izeneko. 2015eko abenduan Gazteluko Ostatuan emanaldi bat eskaini zuen eta berriz ere Malerrekan bere talentuaz gozatzeko aukera izanen dugu.



Egunari amaiera emateko, **PALENKA** taldeak kontzertua eskainiko du, Palenka taldea Pavel eta Lenka bikoteak osatzen dute, Hendaian bizi dira eta Txekiar eta Eslovakiar errepubliketako musika eta euskal musika lantzen dituzte. Euskara ikasten ari dira.

URRIAK 29, LARUNBATA  
SALDIAS: Elizan.  
18:00

- **AMAIA ZUBIRIA eta EDORTA AMURUA**
- **JEAN BORDAXAR LAUKOTEA**

Sarrera: 5 €

Malerrekako Kultur Ibilbideko 2016ko edizioa modu ezin egokiago batean bukatuko da Saldiasen.



**AMAIA ZUBIRIA ETA EDORTA AMURUA:** Amaia Zubiriak ibilbide luzea darama euskal kantagintzan; 1977 urtean Haizea taldean parte hartu zuen, eta ordutik ibilbide luze bezain oparoa izan du. Azken urteetan, bere semea den Edortarekin hainbat kantaldi eman ditu, ahotsa eta gitarra soilaren soinua eskainiaz, beti ere intimotasun giro bat bilatzen.



**JEAN BORDAXAR LAUKOTEA:** Jean Bordaxar zuberotar kantaria, dantzaria, aktorea eta pastoral egilea da. Zuberoako kantagintzari molde berriak ekarri dizkio Bordaxarrek, tradizioaren eta modernitatearen arteko zubi bat eraikiz. Jean-Pierre Luro, Jean-Noel Pinque eta Robert Larrandaburu kantari zuberotarrekin laukotea sortu zuen, Pirinioetako modu tradizionalaren ildoan hiru eta lau bozetan kantatzeko *a cappella*

### **Informazio gehiago:**

Malerrekako Euskara Zerbitzua (Eneko Anduaga)  
948 451 746 / [euskarazerbitzua@malerreka.infolocal.org](mailto:euskarazerbitzua@malerreka.infolocal.org)